

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### **Alkatearen dekretua, bere eginkizunetan ordezkoa izendatzeko**

Alkatearen maiatzaren 26ko 104/2019 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onartu zen:

Xedatzen dut

Lehenengoa. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Idoia Arenaza Sáenz del Burgo lehen alkateordearengan uztea alkatearen eginkizun guztiak 2019ko ekainaren 1etik urriaren 7ra bitartean, biak barne, alkatea oporretan egongo baita.

Bigarrena. Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere, hartu beharreko administrazio egintzak hartuta.

Hirugarrena. Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, aldez aurretik, Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 115. artikuluan xedatzen duenez.

Laugarrena. Dekretu honen bidez ematen den eskuordetzeak organo eskuordearen onespena behar du eraginkorra izan dadin, eta isilbidez onetsi dela ulertuko da baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazten den egunaren hurrengotik hasi eta hiru egun balioduneko epearen barruan.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

Seigarrena. Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan eskuordetzeei buruz ezarritakoei dagokienez.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da, Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduak 44.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa).

Santikurutze Kanpezu, 2019ko maiatzaren 26a

*Alkatea*  
**IBERNALO BASTERRA TXASKO**